

TXOSNEN KONTRA DATOZ

Ez da lehen aldia Txosna Batzordeak ohar bat atera behar duela EAJ-PSEk osatutako Udal Gobernuaren inguruan, gertatutakoa herriak jakin egin behar duela pentsatzen duelako. Aurretik, txosnaguneko aldarrikapenen kontrako prentsa oharrengatik, edo zinegotzi batek Txosna Batzordeko eragileek babesten zuten manifa baten deialdiarako pankarta apurtzeagatik, zinegotziren batek egunkarietan txosnagunearen inguruan erabilitako mespretxuzko hizkeragatik... gure ahotsa jaso behar izan dugu.

Badirudi, EAJ-PSEri Txosna Batzordeari trabak ipintzea gustatzen zaiola. Hainbat bider, oso epe laburrarekin, iritsi izan zaigu ezinbestean bete beharreko azken orduko exijentziaren bat. Orain dela urte bi, arkitekto batek diseinatutako larrialdi eta ebakuazio (!!) plan bat eskatu zigun Udalak txosnak ireki baino hiru-lau egun lehenago (bestela ez omen genuen baimenik jasoko txosnagunea ipintzeko); iaz, Udalak argindarra emateari utziko ziola eta guk geuk hornitzaile bat bilatu beharko genuela esan ziguten, irekierarako egun gutxi batzuk falta zirenean. Jakin gurako genuke zenbat ekitaldi, kontzertu, azokak... jasotzen duten Udalak utzitako argindarra! Arazoa, baina, txosnak dira.

Horrelako eskaerekin, txosnetako eta jaietako prestaketen hilabeteetako esfortzu guztia kolokan ipintzen dute, eta Txosna Batzordeak, dagoeneko, ez daki zer izango den azken astean jasoko duen hurrengo "ezinbesteko" betebeharra Sanjuanetan. Dena dela, horretaz ezer ez esatea izan da gure hautua orain arte.

Baina oraingoan, beste zerbait gehitu zaigu: Txosna Batzordeko eragileek jartzen duten ia 2000 euroko fiantza kentzea. Bi gauza leporatzen dizkigute:

1- Txosnagunea "zikin" geratzen dela. Jakina, txosnagunea, hainbat egunez milaka pertsona bertatik jaiak osapatzen eta kontzertuak entzuten ibili ondoren, zikin geratuko da. Nola ez da ba zikin geratuko hein batean? Guk gure txosnak, edalontziak, kaxak, zakarrotziak, kartelak, kableak, makinak... jasotzen ditugu urtez urte, eta inguruko trabak eramandakoan, Udaleko makinek errepaso bat ematen diote falta diren hondarrak garbitzeko. Beste edozein taberna nahiz jai ingurutan egiten duten bezalaxe. Ala Udalak kontratatutako garbiketa enpresek ez dituzte garbitzen beste jai guneak? Taberna inguruak? Azokak? Zezen plaza ingurua? Izan ere, herriko jaiak dira, eta jende asko ibiltzen da, eta janari nahiz edari asko hartzen da. Hemen eta munduko edozein lekutan, horrek jai guneak zikin samar utziko du; ez da munduaren amaiera. Zein da arazoa, herri osoko gau giroa dagoen edozein tokitan bezalaxe, azken garbiketa garbitasun enpresek egin dezaten?

2- Txosnaguneak ez ditu ordutegiak errespetatu. Noski, goizeko 3:00etan musika jaistea eta 5:00etan kentzea eskatuz gero (bezero barik egoteko?), txosnaguneak EZIN DU ordutegi hori errespetatu. Gure eragileentzat txosnak jartzea inbertsio eta ahalegin handia da, eta gau batzuetan topera ibili beharra dago apustua errentagarria izan dadin, boluntarioen eragileek diru apur bat lor dezaten urtean zehar lan egin ahal izateko. Pentsa dezagun; zenbat gautan egoten da urtean txosnagunea goizera arte (7:30-8:00ak arte) zabalik? HIRUTAN. Hiru gau urte osoan, jaietan; ekainaren 23an, 25ean, eta Maritxu Kajoi egunean. Baina Udalarentzat, boluntario batzuek herriko jaietan lan egitea trabaz eta bete ezineko baldintzaz bete beharreko zerbait da. Benetan sanjuanetako egun handienetan eta Maritxutan goizeko 3:00etan musika ez kentzea zigortu beharreko zerbait da? Ala aitzakia bat, izorratzeko?

Gure egoera ez da batere eroso une hauetan. Ez dakigu zein izango den hurrengo pausua... kontzertuetarako laguntzak kentzea? Kokagunea? Ura kentzea? Fiantza handitzea? Isunak?... Txosnak jartzea jasangaitza bihurtu arte? Urtero zerbait izan dugu, eta arazoak eraso bihurtzen ari diren sentazioa daukagu. Guk lanean jarraituko dugu, baina borrokan ere bai, jai eredu partehartzaile eta herrikoien alde. Gora Sanjuanak, gora Maritxu kajoi! Eta gora jai herrikoiak!